Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko apirilaren 3a, osteguna — 64 — Jueves, a 3 de abril de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## ELGOIBARKO UDALA

### Hirigintza

*Iragarkia*

Osoko Udal Batzarrak 2025eko martxoaren 11n egindako bilkuran, honako akordio hau onartu zuela:

— Elgoibarko Ekiola Parke Fotovoltaikoaren Plan Berezia behin betikoz onartzea.

Aho batez onartu eta akordio bilakatu da Lurralde Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

Behin betiko onartzeko aurkeztu da «Elgoibarko Ekiola parke fotovoltaikoaren plan bereziari» buruzko agiria, «Elgoibarko eta Mendaroko Ekiola S. Coop.» enpresak sustatutakoa eta Krean S. Coop. elkarteak idatzitakoa (erredakzio taldea Larraitz Sasian eta Marta Díez de Cerio arkitektoek osatu dute).

Hona hemen espedientean ageri diren aurrekari administratiboak:

— Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024/05/27an egindako bileran, lehendabizikoz onartu zuen «Elgoibarko Ekiola parke fotovoltaikoaren plan bereziari» buruzko agiria, «Elgoibar eta Mendaroko Ekiola S. Coop.» enpresak aurkeztutakoa, Eusko Jaurlaritzako ingurumen organoak egin behar zuen ingurumen txosten estrategikoan adierazitakoa kontuan izatekotan.

— Ingurumen Kalitateko eta Ekonomia Zirkularreko Zuzendariak 2024/07/22an emen zuen Ebazpenaren bitartez, «Elgoibarko Ekiola parke fotovoltaikoaren plan bereziari» buruzko ingurumen txosten estrategikoa egin zen, eta hauxe erabaki zen: ezarritako babes neurriak eta neurri zuzentzaileak hartuz gero, plan berezi horrek ez zuela ingurumen ebaluazio arrunta egiteko beharrik.

— Plana jendaurrean jarri zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2024/06/10) eta Diario Vascon (2024/06/08) argitaratu ziren iragarkien bitartez, eta horretarako ezarritako epean, ez zen alegazioak egiteko inolako idatzirik aurkeztu.

— Txostena eskatu zitzaion Gipuzkoako Foru Aldundiko bide azpiegituretako Sailari, eta 2024/06/12ko txostenaren bitartez, aditzera eman zuten ez zegoela eragozpenik plan berezia onartzeko.

— Nekazaritza sektorearen eragina ebaluatzeko protokoloaren txostena eskatu zitazion nekazaritzaren arloan eskumena duen foru organoari, eta Lurralde Oreka Berdearen Diputatuak 2024/08/12an egin zuen txostenaren bidez, planaren aldeko adierazpena egin zen.

— Espedientea EAELABera bidali zen 46/2020 Dekretuaren 32.5 artikuluan xedatutakoa betetzeko, eta erakunde horrek, 2024/11/28an egindako bileran, plan bereziaren aldeko adierazpena egin zuen. Hala eta guztiz ere, aditzera eman zen espedienteak balorazio sakonagoa egin behar zuela instalazioak izan dezakeen paisaia eraginaren helmenari buruz.

— Gerora, Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatu zion herri interesekotzat har zezala «Elgoibarko Ekiola parke fotovoltaikoaren plan berezia» ahalbidetzen duen jarduera. 2025/02/25ean Lurralde Antolamenduko Zuzendari Nagusiak ebazpena eman zuen

## AYUNTAMIENTO DE ELGOIBAR

### Urbanismo

*Anuncio*

El Pleno de la Corporación, en sesión celebrada el día 11 de marzo de 2025, adoptó el siguiente acuerdo:

— Aprobación definitiva del Plan Especial del Parque Fotovoltaico Ekiola de Elgoibar.

Es aprobado por unanimidad, elevándolo a la categoría de Acuerdo, el siguiente dictamen de la Comisión de Territorio:

Se presenta para su aprobación definitiva el documento del «plan especial del parque fotovoltaico Ekiola de Elgoibar», promovido por «Elgoibar eta Mendaroko Ekiola, S. Coop.», y redactado por Krean, S. Coop. (el equipo redactor está formado por las arquitectas Larraitz Sasiain y Marta Díez de Cerio).

Los antecedentes administrativos que obran en el expediente son los siguientes:

— La Junta de Gobierno Local, en sesión celebrada el 27/05/2024 aprobó inicialmente el documento de «plan especial del parque fotovoltaico Ekiola de Elgoibar» presentado por «Elgoibar eta Mendaroko Ekiola, S. Coop.», condicionada a lo que resultara del informe ambiental estratégico que emitiera el órgano ambiental del Gobierno Vasco.

— Mediante Resolución del Director de Calidad Ambiental y Economía Circular de 22/07/2024 se formuló el informe ambiental estratégico del «plan especial del parque fotovoltaico Ekiola de Elgoibar», determinando que siempre que se adopten las medidas protectoras y correctoras establecidas, el plan especial no debe someterse a evaluación ambiental ordinaria.

— El plan fue sometido a exposición pública mediante anuncios publicados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (10/06/2024) y en el Diario Vasco (08/06/2024), y en el plazo establecido para para ello no fue presentado escrito de alegación alguno.

— Se solicitó informe al Departamento de infraestructuras viarias de la Diputación Foral de Gipuzkoa, y mediante informe de 12/06/2024 señalaron que no existían inconvenientes para la aprobación del plan especial.

— Se solicitó informe PEAS al órgano foral competente en materia agraria, y mediante informe de 12/08/2024 del Diputado de Equilibrio Territorial Verde se informó favorablemente el plan.

— El expediente fue remitido a la COTPV, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 32.5 del Decreto 46/2020, y dicho organismo, en sesión celebrada el 28/11/2024, informó favorablemente el plan especial. Ello, no obstante, se señaló que el expediente debía valorar con mayor profundidad el alcance del impacto paisajístico que pudiera tener la instalación.

— Posteriormente el Ayuntamiento solicitó a la Diputación Foral de Gipuzkoa la declaración de interés público de la actuación que posibilita «plan especial del parque fotovoltaico Ekiola de Elgoibar». Con fecha 25/02/2025, la Directora General de Ordenación del

EK\CV GAO-I-2025-02208

herri interes hori aitortzeko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

— Plan bereziaren sustatzaileak beste agiri bat aurkeztu du behin betiko onartzeko (2024ko abendua). Dokumentuak honako hauek hartzen ditu bere baitan: lehendabizikoz onartu zen plan berezia, ingurumen txosten estrategikoan jasotako babes neurriak eta neurri zuzentzaileak eta EAELABren txostenean adierazitako baldintza ere bai. Hala, Memoriaren 10. atalean ingurumen txosten estrategikoaren neurri zuzentzaileak jaso dira. Horretaz gain, memorian 3. eranskina gehitu da (paisaiaren eraginari buruzko azterketa osagarria) EAELABren errekerimendua betetzeko.

Bestalde, Udal Zerbitzu Teknikoek egin duten txostena ere aztertu da.

Horiek horrela, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 97 artikuluan eta Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.c) artikuluan ezarritakoaren arabera.

Lurralde Batzorde Informatzaileak Osoko Bilkurari proposatzen dio ondoko Akordioak har ditzala:

*Lehenengoa.* «Elgoibarko Ekiola parke fotovoltaikoaren plan bereziari» buruzko agiria (2024ko abendukoa), behin betiko onartzea.

*Bigarrena.* Gipuzkoako Foru Aldundiko hirigintzako antolamenduaren Erregistro administratibora ale bat bidaltzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako.

*Hirugarrena.* Espedientearen behin betiko onarpenari buruzko akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan zabalkunde handiena duen egunkarian argitaratzea. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den akordioan onartutako hirigintza-araudiaren testu osoa txertatu beharko da. Hori guztiori, dokumentua Gipuzkoako Foru Aldundiko Erregistrora bidali ostean egin beharko da.

Halaber, plan bereziari buruzko agiria Udalaren webgunean argitaratuko da.

*Laugarrena.* 15 eguneko epean, behin betiko ebazpenari buruzko akordioa EAELABera bidatzea; eta 3 hilabeteko epean, espedientearen ale oso bat, Batzordeak artxibatu dezan.

*Bosgarrena.* Interesdunari akordio hau jakinaraztea, legez ezarrita dagoen eran.

Akordio hau behin betikoa da, eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu dezake interesdunak Euskadiko Justiziako Auzitegi Nagusiak Bilbon duen Administrazioarekiko Auzietako Salan, akordio hau argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta biharamunetik hasita, bi hileko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute, horren aurretik, Udalbatzarrari berraztertzeko errekurtsoa aurkezteko, akordioa argitaratu edo, hala badagokio, jakinarazi eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu, harik eta berraztertzeko errekurtsoa berariaz ebatzi arte edo, ustez, atzera bota arte.

Elgoibar, 2025eko martxoaren 19a.—Alkatea. (2208)

Onartutako agiriaren Hirigintza Araudia argitaratzen dugu hemen, eta adierazten dugu onartutako dokumentua gordailutu dugula 2025eko martxoaren 18an, Gipuzkoako Foru Aldundiaren hirigintza antolamenduaren erregistro administratiboan.

Territorio dictó resolución declarando dicho interés público, a los efectos de lo dispuesto en el artículo 28.5.a) de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

— Por el promotor del plan especial se ha presentado un nuevo documento para la aprobación definitiva (diciembre 2024). El documento incorpora al plan especial inicialmente aprobado las medidas protectoras y correctoras recogidas en el informe ambiental estratégico, así como la condición señalada en el informe de la COTPV. Así, en el apartado 10 de la Memoria se han incorporado las medidas correctoras del informe ambiental estratégico, y en la Memoria se ha añadido un anexo 3 (Estudio complementario sobre la afección paisajística) en cumplimiento del requerimiento de la COTPV.

Visto el informe elaborado por los Servicios Técnicos Municipales.

De conformidad con lo establecido en el artículo 97 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, y en el artículo 22.c) de la Ley 7/1985, de 2 abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

La Comisión Informativa de Territorio propone al Pleno de la Corporación la adopción de los siguientes Acuerdos:

*Primero.* Aprobar definitivamente el documento de «plan especial del parque fotovoltaico Ekiola de Elgoibar» (de fecha diciembre de 2024).

*Segundo.* Remitir al Registro administrativo del planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa un ejemplar del plan especial, a los efectos de lo establecido en el artículo 89 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

*Tercero.* Proceder a la publicación del acuerdo de aprobación definitiva del expediente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en uno de los diarios de mayor difusión del Territorio Histórico de Gipuzkoa, incorporando, en la publicación del Boletín Oficial de Gipuzkoa el texto íntegro de la normativa urbanística que se aprueba, todo ello, una vez remitido el documento al Registro de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Proceder, asimismo, a la publicación del documento del plan especial en la página web del Ayuntamiento.

*Cuarto.* Remitir a la COTPV, en el plazo de 15 días, una copia del acuerdo de resolución definitiva, y en el plazo de 3 meses, un ejemplar completo del expediente, para su archivo por la Comisión.

*Quinto.* Notificar el presente acuerdo a las personas interesadas, en la forma legalmente establecida.

Este Acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a aquel en que tenga lugar su publicación o, en su caso, notificación.

Con carácter previo y potestativo los particulares podrán interponer también recurso de reposición ante el Pleno de la Corporación en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación o, en su caso, notificación. En este caso no se podrá interponer el Recurso Contencioso-Administrativo hasta que se resuelva expresamente el de Reposición o se haya producido su desestimación presunta.

Elgoibar, a 19 de marzo de 2025.—La alcaldesa. (2208)

A continuación se publica la Normativa Urbanística del documento aprobado, con indicación de que en fecha 18 de marzo de 2025 se procedió al depósito del documento urbanístico aprobado en el registro administrativo de planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Aurkibidea.

Lehen titulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Aplikazioaren xedea eta eremua.

2. artikulua. Indarrean sartzea eta indarraldirako baldintzak.

3. artikulua. Plan Berezia eratzeko dokumentuak eta horien arauen irismena.

Bigarren titulua. Hirigintza erregimena.

1. kapitulua. Lurraren kalifikazio zehatzaren erregimena.

4. artikulua. Kalifikazio zehatzaren erregimenaren definizioa.

5. artikulua. Zonifikazio-kodea.

6. artikulua. «Zerbitzu-azpiegiturak-parke fotovoltaikoa» zonaldea.

2. kapitulua. Egikaritze-araubidea.

7. artikulua. Interes publikoaren adierazpena.

8. artikulua. Plan Bereziaren egikaritze-araubidea.

9. artikulua. Antolamendutik kanpo dauden eraikinak eta instalazioak.

10. artikulua. Partzelazioa.

Hirugarren titulua. Instalazioaren eta urbanizazioaren arau partikularrak.

1. kapitulua. Eguzki-instalazio fotovoltaikoren baldintzak.

11. artikulua. Instalazioen baldintzak.

2. kapitulua. Hirigintza-baldintzak eta zerbitzu-azpiegiturak.

12. artikulua. Lur mugimendua.

13. artikulua. Sarbide-baldintzak.

14. artikulua. 13.2 kV-ko linea elektrikoak eta Sekzionamendu Zentroa.

15. artikulua. Lursailaren barneko urbanizazioa.

16. artikulua. Lursailaren itxitura.

Laugarren titulua. Hirigintza-antolamenduari gainjarritako baldintzatzaileak.

17. artikulua. Ingurumen arloko baldintzatzaileak.

18. artikulua. Nekazaritzaren sektorean duen eragina ebaluatzeko protokoloan ezarritako baldintzak.

## LEHEN TITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua. Aplikazioaren xedea eta eremua.*

Hirigintza Arau hauen xedea Plan Berezi honek zedarriztatutako eremuan dauden lursailen eta eraikin eta instalazioen erabilera arautzea da, Elgoibarren (Gipuzkoa) Ekiola Parke Fotovoltaikoa garatzeko, eta behin betiko onartzen diren unetik aurrera aginduko dute eremu osoan.

*2. artikulua. Indarrean sartzea eta indarraldirako baldintzak.*

1. Plan Berezia behin betiko onespenaren eta bere hirigintza-arauen akordioa argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta arautzaile izango da bertako zehaztapenak erabat edo partzialki aldatzen diren arte legez ezarritako betekizunekin, edo zeharo indargabetzen diren arte hori ezartzen duen maila goragoko plangintza-tresna baten onarpenaren ondotik.

2. Plan Bereziaren zehaztapenen bat bertan behera utzi, baztertu edo aldatzeak ez du eraginik izango gainerakoen balioan, baldin eta elkarreragin edo mendekotasun egoeragatik horietakoren bat inplikatzen ez bada.

Índice.

Título primero. Disposiciones de carácter general.

Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.

Artículo 2. Entrada en vigor y condiciones de vigencia.

Artículo 3. Documentos constitutivos del Plan Especial y alcance normativo de los mismos.

Título segundo. Régimen urbanístico.

Capítulo 1. Régimen de calificación pormenorizada del suelo.

Artículo 4. Definición del régimen de calificación aplicable.

Artículo 5. Código de Zonificación.

Artículo 6. Zona «Infraestructura de servicios-parque fotovoltaico».

Capítulo 2. Régimen de ejecución.

Artículo 7. Declaración de interés público.

Artículo 8. Régimen de ejecución del Plan Especial.

Artículo 9. Edificios e instalaciones fuera de ordenación.

Artículo 10. Parcelación.

Título tercero. Normas particulares de la instalación y urbanización.

Capítulo 1. Condiciones de la instalación solar fotovoltaica.

Artículo 11. Condiciones de las instalaciones.

Capítulo 2. Condiciones de urbanización e infraestructuras de servicio.

Artículo 12. Movimiento de tierras.

Artículo 13. Condiciones de acceso.

Artículo 14. Líneas eléctricas de 13.2 kV y Centro de Seccionamiento.

Artículo 15. Urbanización interior de la parcela.

Artículo 16. Cierre de parcela.

Título cuarto. Condicionantes superpuestos a la ordenación urbanística.

Artículo 17. Condicionantes ambientales.

Artículo 18. Condiciones establecidas en el PEAS.

## TÍTULO PRIMERO

## DISPOSICIONES DE CARÁCTER GENERAL

*Artículo 1. Objeto y ámbito de aplicación.*

Estas Normas Urbanísticas tienen por objeto la reglamentación del uso de los terrenos y de las edificaciones e instalaciones incluidos dentro del ámbito delimitado por el presente Plan Especial para el desarrollo del Parque Fotovoltaico Ekiola en Elgoibar (Gipuzkoa) y regirán desde el momento de su aprobación definitiva en toda la extensión del área.

*Artículo 2. Entrada en vigor y condiciones de vigencia.*

1. El Plan Especial entrará en vigor al día siguiente de la publicación del acuerdo de su aprobación definitiva y de sus normas urbanísticas, y regirá hasta que sus determinaciones sean modificadas total o parcialmente con los requisitos legalmente establecidos, o derogadas por completo por la aprobación de un instrumento de planeamiento de ámbito superior que así lo establezca.

2. La nulidad, anulación o modificación de alguna de las determinaciones del documento de Plan Especial no afectará a la validez de las restantes, salvo en el supuesto de que alguna de ellas resulte inaplicable por circunstancias de interrelación o dependencia.

EK\CV GAO-I-2025-02208

*3. artikulua. Plan Berezia eratzeko dokumentuak eta horien arauen irismena.*

1. Plan Berezia eratzeko dokumentuak.

Plan Berezi hau dokumentu hauek osatzen dute:

A dokumentua. Memoria.

B dokumentua. Hirigintza arauak.

C dokumentua. Antolakuntza gidalerroak eta exekuzioaren kudeaketa.

D dokumentua. Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketa.

E dokumentua. Laburpen exekutiboa.

F dokumentua. Planoak.

2. Dokumentuen arau-izaera.

Proiektuaren arauak artikulu honetako 1. Epigrafean zehaztutako dokumentuetan zehazten den arren, «B» dokumentua (Hirigintza Arauak) eta «F» Dokumentua (Planoak) dira bereziki hirigintza esku-hartzearen arau eta erregulazio izaera hori dutenak, beraz, arauak bertako zehaztapenetara egokitu beharko dira derrigorrez.

Gainerako dokumentuak, funtsean, adierazgarriak, erreferentzialak edo justifikatzaileak dira, eta, beraz, edukiari dagokionez aurrez aipatutakoekin kontraesanik izanez gero, horiek izango dute lehentasuna.

Hirigintza-arau hauetan hartzen ez diren izaera orokorreko kasuetarako, une horretan indarrean den plangintza orokorreko (HAPO) araudi orokorrak aginduko du.

3. Dokumentuen arteko desadostasuna.

Arau izaera duten eta eskala desberdinetan gauzatutako planoen artean desadostasunen bat agertuko balitz, hirigintza-zehaztapen konkretu baten gainean, eskala xehatuagoan egindako planoetan zehazten dena gailenduko da, desadostasun hori, azken hauetan dagoen errore material batengatik gertatzen ez bada.

Hirigintza arauetan, euskarazko testuaren eta gaztelerazko testuaren artean kontraesan bat egongo balitz, gazteleraz idatzitako jatorrizko testua gailenduko da.

BIGARREN TITULUA

HIRIGINTZA ERREGIMENA

1. KAPITULUA. LURRAREN KALIFIKAZIO ZEHATZAREN ERREGIMENA

*4. artikulua. Kalifikazio zehatzaren erregimenaren definizioa.*

Plan Berezi honen eremua dokumentu honetako «Zonakatze xehatua» izeneko PO.01 planoan jasotzen den kalifikazio-araubidearen mende geratzen da.

*5. artikulua. Zonifikazio-kodea.*

Eremu osoak «Zerbitzu-azpiegiturak-parke fotovoltaikoa» sailkapen xehatua du.

Erabilera hori bateragarria da indarreko HAPO planeko «Basogintza-erabilera» eta «Nekazaritza eta Abeltzaintzako erabilera. Trantsizioko Landa Paisaia» sailkapen orokorreko zonaldetan.

*6. artikulua. «Zerbitzu-azpiegiturak-parke fotovoltaikoa» zonaldea.*

1. Definizioa: Zonalde malkartsua, plaka fotovoltaikoak instalatzeko egokia, beren orientazioagatik eta bertan dauden linea elektrikoak kontuan izanik, sortutako energia ateratzea ahalbidetzen dutenak.

*Artículo 3. Documentos constitutivos del Plan Especial y alcance normativo de los mismos.*

1. Documentos constitutivos del Plan Especial.

El presente Plan Especial está constituido por los siguientes documentos:

Documento A. Memoria.

Documento B. Normas urbanísticas.

Documento C. Directrices de organización y gestión de la ejecución documento.

Documento D. Estudio de viabilidad económico financiera.

Documento E. Resumen ejecutivo.

Documento F. Planos.

2. Carácter normativo de los documentos.

Si bien el contenido normativo del proyecto queda definido por el conjunto de los documentos señalados en el epígrafe 1 del presente artículo, son los documentos «B» Normas Urbanísticas y «F» Planos los que poseen específicamente ese carácter normativo y de regulación de la intervención urbanística y, por tanto, ésta se deberá ajustar obligatoriamente a sus determinaciones.

El resto de los documentos poseen un carácter fundamentalmente indicativo, referencial o justificativo, por lo que, en caso de contradicción en su contenido con los citados anteriormente, serán aquellos los que prevalezcan.

En aquellos casos de orden general no contemplados en estas normas urbanísticas, regirá la normativa general del planeamiento general que se encuentre en vigor en ese momento (PGOU).

3. Discordancias entre documentos.

Si se advirtiese discordancia respecto a una determinación urbanística concreta entre planos de carácter normativo realizados a diferentes escalas, prevalecerá lo establecido en los planos redactados a una escala más detallada, salvo que la discrepancia responda a un error material manifiesto en el contenido de estos últimos.

En caso de contradicción en las normas urbanísticas entre el texto en euskera y en castellano prevalecerá el original redactado en castellano frente a su traducción al euskera.

TÍTULO SEGUNDO

RÉGIMEN URBANÍSTICO

CAPÍTULO 1. RÉGIMEN DE CALIFICACIÓN PORMENORIZADA DEL SUELO

*Artículo 4. Definición del régimen de calificación aplicable.*

El ámbito del presente Plan Especial queda sometido al régimen de calificación recogido en el plano PO.01 «Zonificación pormenorizada» del presente documento.

*Artículo 5. Código de zonificación.*

La totalidad del ámbito tiene la calificación pormenorizada de «Infraestructuras de servicios-parque fotovoltaico».

Siendo éste un uso compatible en las zonas de calificación global «Uso Forestal» y «Uso Agroganadero Paisaje Rural de transición» del PGOU vigente.

*Artículo 6. Zona «Infraestructura de servicios-parque fotovoltaico».*

1. Definición: Zona en pendiente adecuada para la instalación de placas fotovoltaicas por su orientación y cercanía a líneas eléctricas existentes que posibilitan la evacuación de la energía generada.

EK\CV GAO-I-2025-02208

2. Domeinua: Pribatua.

3. Erabilera-araubidea.

— Erabilera nagusia: Zerbitzu-azpiegiturak, parke fotovoltaiko modalitatean, erabilgarritasun publikoko eta gizarte-intereseko arrazoiengatik justifikatzen denean.

— Erabilera bateragarriak: Espazio libre eta berdeguneak eremuaren barnean kokatuak.

— Debekatutako erabilerak: Gainerakoak.

4. Eraikuntza-araubidea.

— Oro har, ez da eraikinik baimentzen. Etxolak txertatzea ahalbidetzen da, transformazio-zentroak hartzeko, plaka fotovoltaikoak edota parke fotovoltaikoarekin zerikusia duten bestelako instalazio edo azpiegiturak instalatzeko.

2. KAPITULUA. EGIKARITZE-ARAUBIDEA

*7. artikulua. Interes publikoaren adierazpena.*

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko premiazko neurriei buruzko ekainaren 3koa 105/2008 Dekretuaren 4. artikuluan jasotzen denez, Ekiolako instalazio fotovoltaikoa interes publikokotzat jo beharko da Gipuzkoako Foru Aldundiaren ebazpenez.

*8. artikulua. Plan Bereziaren egikaritze-araubidea.*

Plan Bereziak zedarriztatutako eremuan proiektatutako antolamenduaren garapena zuzenean egikaritzekoa izango da, aldez aurretik, dagokion obra-lizentzia eskuratuta.

*9. artikulua. Antolamendutik kanpo dauden eraikinak eta instalazioak.*

Antolamendutik kanpo geldituko dira Plan Berezia honen zehaztapenekin bat ez datorren edozein eraikuntza, instalazio edo erabilera.

*10. artikulua. Partzelazioa.*

1. Debekaturik geratzen dira hirigintza-partzelazioak edo beste edozein motakoak, eta aplikagarri den legeria orokorrean ezarritako irizpideen arabera partzela nagusien gainean egiten diren banaketa eta zatiketak baino ez dira onartuko.

2. EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPS planeko 11. artikuluan ezartzen denari jarraikiz (177/2014 Dekretua), eragindako lursailetan ez da zatiketarik onartuko, horren ondorioz gutxieneko laborantza-unitatea baino azalera txikiagoa duten partzelak edo lursailak sortzen badira, aurretiaz dauden beste nekazaritza- ustiapen batzuetara atxikitzen direla bermatu ezean.

HIRUGARREN TITULUA

INSTALAZIOAREN ETA URBANIZAZIOAREN ARAU PARTIKULARRAK

1. KAPITULUA. EGUZKI-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOREN BALDINTZAK

*11. artikulua. Instalazioen baldintzak.*

1. Kontzeptua.

Instalazio modura definitzen dira parke fotovoltaikoaren funtzionamendurako beharrezkoak diren eta eraikin izaera ez duten eraikitako elementu guztiak: modulu edo plaka fotovoltaikoak, inbertsoreak eta transformazio-zentroak.

2. Gehieneko lerrokadurak.

PO.02. planoa. «Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak» izenekoak instalazioaren gehieneko lerrokadurak ezartzen ditu (plakak, inbertsoreak, CT...).

2. Dominio: Privado.

3. Régimen de uso.

— Uso predominante: Infraestructuras de servicios, en la modalidad de parque fotovoltaico cuando se justifique por motivos de utilidad pública e interés social.

— Usos compatibles: Espacios libres y zonas verdes ubicados en el interior del ámbito.

— Usos prohibidos: El resto.

4. Régimen de edificación.

— Con carácter general no se autoriza la edificación. Se permite la implantación de casetas para centros de transformación, la instalación de placas fotovoltaicas y otras instalaciones e infraestructuras vinculados al parque fotovoltaico.

CAPÍTULO 2. RÉGIMEN DE EJECUCIÓN

*Artículo 7. Declaración de interés público.*

Tal como se recoge en el artículo 4 del Decreto 105/2008, de 3 de junio, de medidas urgentes en desarrollo de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, la instalación fotovoltaica Ekiola deberá ser declarada de interés público por resolución de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Artículo 8. Régimen de ejecución del Plan Especial.*

El desarrollo de la ordenación proyectada en el ámbito delimitado por el Plan Especial será de ejecución directa previa obtención de la correspondiente licencia de obras.

*Artículo 9. Edificios e instalaciones fuera de ordenación.*

Se declara fuera de ordenación cualquier edificación, instalación o uso no coincidente con las determinaciones del presente Plan Especial.

*Artículo 10. Parcelación.*

1. Quedan prohibidas las parcelaciones urbanísticas o de cualquier otra índole, admitiéndose únicamente aquellas segregaciones y divisiones de parcelas matrices que se realicen conforme a los criterios establecidos en la legislación general de aplicación.

2. Según se establece en el artículo 11 del PTS Agroforestal de la CAPV (Decreto 177/2014), no se autorizarán segregaciones de las fincas afectadas que den como resultado nuevas parcelas o fincas con superficie inferior a la unidad mínima de cultivo, salvo que se garantice su adscripción a otras explotaciones agrarias existentes.

TÍTULO TERCERO

NORMAS PARTICULARES DE LA INSTALACIÓN Y URBANIZACIÓN

CAPÍTULO 1. CONDICIONES DE LA INSTALACIÓN SOLAR FOTOVOLTAICA

*Artículo 11. Condiciones de las instalaciones.*

1. Concepto.

Se definen como instalaciones todos los elementos construidos necesarios para el funcionamiento del parque fotovoltaico y que no tienen la consideración de edificación: módulos o placas fotovoltaicas, inversores y centro de transformación.

2. Alineaciones máximas.

El plano PO.02. «Ordenación general. Alineaciones y rasantes» establece las alineaciones máximas de la instalación (placas, inversores, CT...).

EK\CV GAO-I-2025-02208

Oro har, instalazioaren atzerapena beste jabekide batzuekiko mugetara 10 metrora, bide-saretik eta bidetik 15 metrora eta bizitegi-eraikinetik 50 metrora ezartzen da, dokumentu grafikoan islatzen diren atzeraemangune espezifikoak salbuetsita.

Transformazio Zentroa edo Zentroak partzelaren itxieraren mugan kokatzen dira, mugaketa grafikoari jarraikiz, kanpotik bertarako sarbidea bermatuz.

Halaber, perimetro-itxiera edo hesia jar daiteken punturako gehieneko muga ezartzen da.

2. KAPITULUA. HIRIGINTZA-BALDINTZAK ETA ZERBITZU-AZPIEGITURAK

*12. artikulua. Lur mugimendua.*

Parke fotovoltaikoren era-proiektuan lurraren behin betiko sestrak zehaztuko dira, betiere, lur-mugimendu handirik ez egin eta aurretiaz dagoen topografiaren ezaugarriak mantentzeko irizpide orokorraren barnean.

*13. artikulua. Sarbide-baldintzak.*

Instalazio fotovoltaikoak eremuaren iparraldera dagoen bide publikotik izango du sarbidea.

Xendra bat bermatuko da instalazioaren ekialdera kokatutako jabetzatik sartu ahal izateko (51. lursaila) goiko bidera arte, instalazio fotovoltaikoa inguratuz, gaur egun erabilitakoaren ordez.

«Zonakatze xehatua» PO.01 planoan bide-zortasuna grafiatzen da, eta «Antolamendu orokorra» PO.02 planoan mugekiko trazadura eta kokapena adierazten dira. «Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak».

*14. artikulua. 13.2 kV-ko linea elektrikoak eta Sekzionamendu Zentroa.*

Instalazio fotovoltaikoaren gauzapenean kontuan izango da eremutik gertu igarotzen diren erdi-tentsioko lineak direla eta sortutako zortasunetatik eratortzen diren erabilera-mugak, argindarra garraiatzeko, banatzeko, merkaturatzeko eta hornitzeko jarduerak eta argindarreko instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretua aplikatuz, azpiegitura hori kudeatzen duen erakundearekin obrak baimentzeko unean adostutako baldintzen kalterik gabe.

Plan Bereziaren eremutik at, konpainia hornitzaileak Sekzionamendu Zentro bat kokatzea eskatzen du, sostengu elektrikoaren oinetan edo 50 metro baino gutxiagoko distantziara lekutuko dena. Elementu hori erdi-tentsioko linearen parte da eta bertara bideratuko da energia elektrikoaren ekoizpena. Parke fotovoltaikoaren eraikuntza- proiektuan bere ezaugarriak zehaztuko dira, azpiegituraren kudeatzailearekin bat etorriz.

*15. artikulua. Lursailaren barneko urbanizazioa.*

Parke fotovoltaikoaren eraikuntza-proiektuan lursailaren barneko urbanizazioaren ezaugarriak zehaztuko dira, aurreikusitako erabilerarekin koherenteak izango direnak, eta lur-mugimendurik ez egin eta iragazgaiztutako azalerarik ez sortzeko irizpide orokorra betez.

*16. artikulua. Lursailaren itxitura.*

1. Segurtasun-arrazoiak direla medio perimetroa hesiz inguratzea funtsezko betekizuna da eguzki-energiaren ekoizpenerako halako instalazioetan. Hori dela eta, itxitura sinpleak baimentzen dira, metalezko hesi bidez edo alanbrezko hesi bidez; eta landaretza ere jar daiteke, modu osagarrian. Gehienez 2 metroko altuera zehazten da, bertikalean neurtuta, instalazioa txertatzen den lurraren sestra gainean.

2. PO.02 planoan «Antolamendu orokorra. Lerrokadurak eta sestrak» lurzatiaren itxituraren gehieneko lerrokadura islatu da.

De forma genérica se establece el retiro de la instalación en 10 m a linderos con otros propietarios, en 15 m a red viaria y camino y en 50 m a edificio residencial, salvo los retranqueos específicos reflejados en la documentación gráfica.

El Centro o los Centros de Transformación se localizan en el límite del cierre de parcela, según delimitación gráfica, garantizando el acceso exterior al mismo.

También establece el límite máximo donde se puede colocar el cierre perimetral o vallado.

CAPÍTULO 2. CONDICIONES DE URBANIZACIÓN E INFRAESTRUCTURAS DE SERVICIO

*Artículo 12. Movimiento de tierras.*

El proyecto constructivo del parque fotovoltaico definirá las rasantes definitivas del terreno, siempre dentro del criterio general de no realizar grandes movimientos de tierras y mantener las características de la topografía existente.

*Artículo 13. Condiciones de acceso.*

El acceso a la planta fotovoltaica se realizará desde el camino público existente al norte del ámbito.

Se garantizará un sendero para poder acceder desde la propiedad localizada al Este de la instalación (parcela 51) hasta el camino superior, bordeando la planta fotovoltaica, en sustitución del utilizado actualmente.

Se grafía la servidumbre de paso en el Plano PO.01 «Zonificación pormenorizada» y se indica su trazado y posición respecto a linderos en el Plano PO.02 «Ordenación general. Alineaciones y rasantes».

*Artículo 14. Líneas eléctricas de 13.2 kV y Centro de Seccionamiento.*

La ejecución de la planta fotovoltaica se ajustará a las limitaciones de usos que se derivan de las servidumbres generadas por las líneas de media tensión que discurren próximas al ámbito, en aplicación del Real Decreto 1955/2000, de 1 de diciembre, por el que se regulan las actividades de transporte, distribución, comercialización, suministro y procedimientos de autorización de instalaciones de energía eléctrica, sin perjuicio de las condiciones acordadas con el ente gestor de dicha infraestructura en el momento de autorización de las obras.

De forma exterior al ámbito del Plan Especial, la compañía suministradora exige la localización de un Centro de Seccionamiento que se ubicará a pie de apoyo eléctrico o a una distancia menor de 50 m. Este elemento forma parte de la línea de media tensión a la que evacuará la producción de energía eléctrica. El proyecto constructivo del parque fotovoltaico definirá las características del mismo, de acuerdo al gestor de la infraestructura.

*Artículo 15. Urbanización interior de la parcela.*

El proyecto constructivo del parque fotovoltaico definirá las características de la urbanización interior de la parcela que serán coherentes con el uso previsto y respetando el criterio general de no realizar movimientos de tierras y no generar superficie impermeabilizada.

*Artículo 16. Cierre de parcela.*

1. El vallado del perímetro por motivos de seguridad constituye un requisito fundamental en este tipo de plantas de producción de energía solar. Por ese motivo, se permiten los cierres simples mediante valla metálica o malla de alambre que podrá ir, acompañada de vegetación. Se establece una altura máxima de 2 m medidos en vertical sobre la rasante del terreno en el que se implanta.

2. En el plano PO.02 «Ordenación General. Alineaciones y rasantes» se ha reflejado la alineación máxima del cierre de parcela.

EK\CV GAO-I-2025-02208

Eremuaren mendebaldean dagoen Eguzkilore baserriaren lursailaren (56. lursaila) mugan landaretza sartuko da, bertako 0 kotatik instalazio fotovoltaikoaren ikusizko inpaktua nulua izatea bermatuz.

LAUGARREN TITULUA

HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUARI GAINJARRITAKO BALDINTZATZAILEAK

*17. artikulua. Ingurumen arloko baldintzatzaileak.*

Ingurumenean eragin kaltegarriak murrizteko eta Ingurumen Dokumentu Estrategikoan ezartzen diren planaren ingurumen arloko jarraipena egiteko neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaileen zehaztapenak bete beharko dira, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularreko Zuzendaritzak (edo zuzendaritza baliokideak) igortzen duen Ingurumen Txosten Estrategikotik eratortzen diren zehaztapenekin batera. Aipatutako neurriak Plan Bereziko memoriako 10. puntuan jaso dira.

*18. Nekazaritzaren sektorean duen eragina ebaluatzeko protokoloan ezarritako baldintzak.*

Ezingo dira edozer eratako hondakinik utzi lursailean.

Zuhaitzetan inongo eraginik aurreikusiko balitz obra dela eta, tokiko basozainarekin harremanetan jarri beharko da. Obrak hasi aurretik tokiko basozainari jakinarazi lanen hasiera.

3. Se plantará vegetación en el límite con la parcela del caserío Eguzkilore (parcela 56), localizado al Oeste del ámbito, garantizando que el impacto visual de la planta fotovoltaica desde la cota 0 del mismo sea nulo.

TÍTULO CUARTO

CONDICIONANTES SUPERPUESTOS A LA ORDENACIÓN URBANÍSTICA

*Artículo 17. Condicionantes ambientales.*

Se deberán cumplir las determinaciones las medidas protectoras, correctoras y compensatorias para reducir los efectos negativos en el medio ambiente y el seguimiento ambiental del plan que se establecen en el Documento Ambiental Estratégico, así como las determinaciones que se deriven del Informe Ambiental Estratégico que emita la Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular (o Dirección equivalente) de Gobierno Vasco, todas ellas recogidas en el punto 10 de la memoria del Plan Especial.

*Artículo 18. Condiciones establecidas en el PEAS.*

No se podrán dejar residuos de ningún tipo en el ámbito.

Si debido a la obra se previera algún tipo de impacto sobre el arbolado, se deberá contactar con el guardabosques. Antes de iniciar las obras se deberá avisar al guardabosques local.

EK\CV GAO-I-2025-02208